



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailak 11

Vitoria-Gasteiz, 11 de febrero de 2020

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK ESKU-HARTZE SOZIALAREN ESPARRUAN HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERAK SUSTATZEKO 4,7 MILIOI EUROKO DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIA ONARTU DU

- **Beatriz Artolazabal: “Kalteberatasunik handieneko pertsonengana iristen den laguntza-sareari laguntzeko egindako ahalegin ekonomikoa da”**

Gobernu Kontseiluak Euskadiko esku-hartze sozialaren esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzetarako deialdia onartu du gaur goizean, 4.792.480,00 euroko zenbateko batez.

“Gizarte-inklusioaren, familiaren, haurren eta nerabeen babesaren, etorkinen integrazioaren, adinekoen eta abarren arloetan kalteberatasunik handiena jasaten duten pertsonengana egunez egun iristen den laguntza-sareari laguntzeko ahalegin ekonomikoa da”, adierazi du Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalek.

Aurrekontu horren bidez, Beatriz Artolazabalek zuzentzen duen Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ekonomikoki lagunduko die irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei, gizarte-zerbitzuen eta esku-hartze sozialaren esparruan jarduerak egin ahal izan ditzaten.

2020ko deialdiak hiru jarduketa-ildo ditu.

1.- Pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin egin beharreko esku-hartze sozialeko jarduerak, 3,7 milioi eurotik gorako zenbateko batez. Dirulaguntza-ildo horren barruan, pertsonetikiko, familiekiko, taldeekiko eta komunitateekiko esku-hartze sozialeko jarduerak jaso ahal izango dute finantzaketa. Zehazki, pertsonen autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa sustatzera eta babestera bideratutako jardueretarako (eta, ahal bada, esperimenezko edo berrikuntza dakarten jardueretarako) laguntza da.

2.- Esku-hartze sozialaren esparruan ekintza boluntarioa eta elkarleen parte-hartzea indartzeko jarduerak, 599.000 euroko zenbatekoarekin. Ildo horren barruan, esku-hartze sozialean diharduten erakundeek ekintza boluntarioa areagotzera, parte-hartzea garatzera eta entitateak, sareak edo federazioak (ahal bada Autonomia Erkidegokoaren esparrukoak) sortu eta hobetzera bideratutako jarduerak jaso ahal izango dute finantzaketa.

3.- Esku-hartze sozialerako jakintza kudeatzeko jarduerak, 450.000 euroko zenbatekoarekin. Ildo horren barruan, esku-hartze sozialerako baliagarria den jakintza produzitu eta eskuratzera bideratutako jarduerak babestuko dira, hala nola prestakuntza-programak, ikerketa-proiektuak, argitalpenak egitea eta zabaltzea, ikastaroak eta mintegiak.

Euskadiko hirugarren sektore sozialak 38.525 enplegatu ditu, eta 158.599 boluntarioren parte-hartze soziala bideratzen du. Joan den urtean, 363 proiektu finantzatu ziren 348 entitateren bitartez.

Osasuna

OSASUN SAILAREN AURTENGO URTERAKO DIRULAGUNTZA PLAN ESTRATEGIKOAK 17 MILIOI EUROTİK GORA DITU

- **2020rako laguntzak eta dirulaguntzak lau arlo nagusirekin lotuta daude: Osasunaren sustapena eta gaixotasunen prebentzioa; Adikzioen prebentzioa eta arreta, eta arriskuak eta kalteak gutxitzea; Ikerketa eta berrikuntza; eta Profesionalak**

Osasun Sailaren 2020rako Dirulaguntza Plan Estrategikoak 17,7 milioi eurotik gora ditu aurreko urtean baino 2 milioi gehiago, eta onartu berria da. Dokumentua planifikazio-tresna bat da, eta horren bidez Sailak osasuna sustatu nahi du 2013-2020ko Osasun Planaren eta 2017-2020ko Euskadirako arreta soziosanitarioaren ildo estrategikoen helburuen esparruan dirulaguntzak emanaz. Horrela, ardatz nagusizat pertsonak eta Euskadiko osasun-sistemaren oinarrian dauden printzipioak, hau da, unibertsaltasuna, elkartasuna, ekitatea, zerbitzuen kalitatea, efizientzia eta herritarren parte-hartzea hartuta, Osasun Sailak hitzeman du urte hauetan Euskadin bizi diren pertsonen osasuna eta bizikalitatea hobetuko dituela, eta, gainera, modu iraunkorrean eta jarraituan eta eraginkortasunez egingo duela, osasunari eta osasunean eragina duten determinatzaileei buruzko ikuspegi integral batetik.

Bestalde, osasuna hobetzeko helburuak barne hartzen ditu osasun-zerbitzuetako ikerketa eta arlo horretako esku-hartzeen eraginkortasunaren ebaluazioa, eta kontuan ditu osasunaren eta gizartearen ikuspegitik interes nabarmena duten gaixotasunak, bai eta multimorbilitateak eta prozesu kronikoek eragindako gaixotasun-zama ere.

Testuinguru horretan, agirian Osasun Sailaren dirulaguntza-jarduera jaso da, kopuru osoa 17,7 milioi eurokoa izanik, eta lau arlo nagusitan banatzen da:

- Osasunaren sustapena eta gaixotasunen prebentzioa
- Adikzioen prebentzioa eta arreta, eta arriskuak eta kalteak gutxitzea
- Ikerketa eta berrikuntza
- Profesionalak

Osasunaren sustapenaren eta gaixotasunen prebentzioaren atalean, zehazki, jaso dira GIB/Hiesaren, sexu-transmisioko infekzioen eta C hepatitisaren arloko dirulaguntzak; tokiko esparruan jarduera fisikoa sustatzekoak; ikasleen artean mugikortasun aktiboa sustatzera bideratutako ekintzak garatzeko elkarte eta kooperatibentzako laguntzak; agindutako mediku-tratamenduak jarraitu ahal izatea bermatzeko laguntzak; eta gaixo-elkarteei emateko dirulaguntzak.

Adikzioen prebentzio eta arretaren, eta arriskuak eta kalteak gutxitzearen arloan erakunde eta antolakundeentzako dirulaguntzak aurreikusten dira, eta laguntzak

talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko, adikzioen prebentzio komunitariorako programak garatzeko eta arriskuak eta kalteak prebenitu eta gutxitzeko proiektuak gauzatzeko dira, bai eta jarduera-eremuotan ohitura osasungarriak sustatzeko ere.

Ikerketaren eta berrikuntzaren arloko laguntzak osasunaren arloko ikerketa eta garapen proiektuetarako eta arlo ezberdinetako ikerketa eta berrikuntzarako erakundeetarako dira.

Azkenik, eta Profesionalen arloan, dirulaguntzak eta laguntzak bideratuko dira osasunaren arloko profesionalen formakuntza-beketara, erakunde profesionaletara, osasunaren arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarteetara eta osasunaren arloko espezialitateetako irabazi asmorik gabeko erakunde zientifikoetara, funtzionamendu-gastuei eta pertsonalaren prestakuntza jarraituarekin lotutako jarduerak antolatzeko gastuei aurre egiteko.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK GASTEIZKO ARTE ETA LANBIDE ESKOLAREN FUNDAZIOAREN FUNTS BIBLIOGRAFIKOA EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREAN SARTUKO DU

- **2004an sortutako Euskadiko Irakurketa Sareak milioi bat erabiltzaile ditu, eta 1.200.000 titulu inguru**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak hitzarmen bat onartu du, bere gaurko bileran, Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolaren Fundazioarekin, erakunde horren funts bibliografikoa Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen lineako katalogoan sartzeko. Akordio berri honek Sarearen eskaintza osatzen du, 1.036.217 erabiltzaile eta 1.200.000 titulu ezberdin inguru biltzen dituena.

Gaur onartutako hitzarmenaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Gasteizko Arte eta Ofizioen Eskola Fundazioaren arteko lankidetzaren eta funtzionamendu-araubidea ezartzea, liburutegiko funts bibliografikoa Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen lineako katalogoan integratzeko, funts bibliografikoa partekatzeko aukera eskainiz, ikusgarritasuna irabaziz eta haren kontrola eta sarbidea erraztuz. Akordio horren ondorioz, liburutegi hori Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak kudeatutako liburutegi-kudeaketako sistema informatiko komunean sartuko da.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Liburutegi Zerbitzuak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea sortu zuen 2004an, Euskadiko liburutegi publiko guztiak biltzeko eta zerbitzuak hobetzeko sinergiak sortzeko helburuarekin. Sare hori udal-titulartasuneko liburutegiek osatzen dute batez ere, baina udalarenak ez diren beste liburutegi batzuek ere osatzen dute (Eusko Jaurlaritza, Artxibo Historikoa, HABE, Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, Zarauzko Photomuseuma, Arabako Foru Aldundiaren mendeko liburutegiak...). Sareak 1.036.217 bazkide ditu, eta bere funtsen artean (6.000.000 baino gehiago) 1.200.000 titulu ezberdin inguru ditu.

Euskadiko Irakurketa Sare Publikoan parte hartzeak abantaila ugari dakarzkie erabiltzaileei:

- Liburutegietan banatutako funtsetara sartzeko txartel bakarra eta doakoa izatea (liburutegi batean ezin bada titulu bat eskuratu, beste batean eskatzen da).
- Liburutegi guztietako funts edo bildumei buruzko informazioa biltzen duen katalogo kolektibo bakarra egotea.

eLiburutegian parte hartzeko aukera ematen die, hain zuzen ere, Estatuko liburutegi digital handiengan.

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 1.580.000 EURO BIDERATU DITU ARTE ESZENIKOEN EKOIZPENA BULTZATZERA, IAZ BAINO 120.000 EURO GEHIAGO

- **Antzerkiarekin eta dantzaren esparruarekin lotutako 39 proiektu diruz lagundu ziren iaz**

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 1.580.000 euro bideratuko ditu aurten arte eszenikoen ekoizpena bultzatzera, joan den ekitaldian baino 120.000 euro gehiago (% 8 gehiago). Jaurlaritzak deialdi hori martxan jartzen duen bigarren urtea da, xedea delarik lehen antzerki eta dantza ikuskizunen ekoizpenera bideratzen ziren laguntza lerroak uztartzea. Iaz, guztira 39 proiektu diruz lagundu ziren deialdi honen bidez.

Arte eszenikoak ikuspegi bateratu batetik jorrazteko helburuarekin sortu zen deialdi honek lau modalitate ditu:

- Hitzartutako zirkuituarekin egindako ekoizpenei zuzendutako laguntzak: Modalitate honen bitartez lagunduko dira SAREAko antzokietatik bira bat ziurtatuta duten produkzio proiektuak.
- Ekoizpen eszenikoak I eta banaketa: Modalitate honetan eta hurrengoan produkzioa egitera laguntzeaz gain honen banaketa ere laguntzen da. Modalitate honetan kalitatezko eta interesa duten proiektu emergenteak lagundu nahi dira batez ere, eta horregatik ibilbidea ez du pisu esanguratsurik.
- Ekoizpen eszenikoak II eta banaketa: Modalitate honetan, aldiz, kalitatezko eta interesa duten proiektuak laguntzeaz gain egituren iraunkortasuna bultzatu nahi da eta ibilbideak pisu handiago du.
- Arte eszenikoetako konpainien bi urteko jardunetarako laguntzak: Euskadiko konpainia finkatuen bi urtetako antzerki jarduera laguntzeko, epe luzeko estrategiak abian jartzeko aukera hobeagoak izan ditzaten.

Aurtengo aurrekontuaren igoerak azken modalitate honi eragiten dio. Laguntza deialdi horrez gain, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak beste diru-laguntza lerro batzuk ere baditu arte eszenikoak bultzatzeko. Batetik, arte eszenikoen sustapenerako deialdia du sailak, eta horrek beste sei modalitate ditu. Bestetik, kultur sorkuntzara zuzendutako deialdiak arte eszenikoei lotutako bi modalitate ditu: koreografiak eta antzerki testuak sortzea.

Segurtasuna

1.788.719 PERTSONAK EMAN AHAL IZANGO DUTE BOTOA EUSKO LEGEbiltzARRA HAUTATZEKO APIRILAREN 5EAN EGINGO DIREN HAUTESKUNDEETAN

- **Hauteskunde-prozesuari buruzko informazioa www.elecciones.eus webgunean eskuratu ahal izango da**

Guztira 1.788.719 pertsonak osatzen dute 2019ko abenduaren 1ean itxitako hautesle-errola, eta XII. legealdian Eusko Legebiltzarra osatuko duten 75 legebiltzarkideak hautatu ahal izango dituzte apirilaren 5ean. Hauteskunde-prozesua gaur hasiko da, hauteskundeetarako deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren, eta datorren maiatzaren hasieran, Eusko Legebiltzar berria eratzen denean, amaituko da. Prozesu osoa gainbegiratzeaz Hauteskunde Batzordeak (zentrala, autonomia erkidegokoa, lurralde historikokoa eta eskualdekkoa) osatuko dituzten 115 gizon-emakumeak arduratuko dira. Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak abian jarritako www.elecciones.eus webgunearen bidez eskuratu ahal izango da abian jarri den prozesuari buruzko informazio guztia.

Apirilaren 5ean egingo diren hauteskundeetan, INEk berritu ditzakeen datuen zain, 2019ko abenduaren 1eko zentsuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko 1.788.719 pertsonak eman ahal izango dute botoa hurrengo legealdian (2020-2024) Eusko Legebiltzarrean egongo diren 75 ordezkariak hautatzeko.

Azken hauteskundeetan 1.778.776 pertsona zeuden 2016ko irailaren 25eko hauteskundeetan botoa ematera deituta. Horrek adierazten du hautesle-errolak 0,56 egin duela gora 2016koarekin alderatuta. Lurraldeei dagokienez, adierazi behar da 947.791 Bizkaikoak direla, 582.938 Gipuzkoakoak eta 257.990 Arabakoak.

Atzerrian bizi diren eta botoa emateko eskubidea duten pertsonen dagokienez, 2020an 75.169 pertsona egongo dira egoera horretan, hau da, 2016an baino 6.010 gehiago.

Aipatu behar da Hauteskunde Batzordeek euren agintealdia luzatuta dutela azaroaren 10eko hauteskunde orokorretatik. Hauteskunde Batzordeak dira prozesu osoa behar bezala joango dela zaintzeaz arduratzen direnak. Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordea izango da prozesuaren arduradun nagusia, eta juristek eta judikaturako kideek osatutako lurralde historikoetako hiru batzarren eta eskualdeko beste hamar batzarren laguntza izango du.

Datozen asteotan zehaztuko dira Eusko Legebiltzarrerako datorren apirilaren 5eko hauteskundeetara aurkeztuko diren hautagai-zerrenden datuak.

Hauteskunde-prozesuaren urrats nagusiak

Deialdia EHAAn argitaratu ondoren emango dira hauteskunde-kronogramako lehen urratsak. Zehazki, alderdi politikoek otsailaren 12tik 19ra bitartean izendatuko dituzte **Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen aurrean hautagai-zerrendetako** ordezkari nagusi izango diren pertsonak, eta hurrengo egunetan izendatu beharko dituzte hautagai-zerrendak barruti bakoitzean ordezkatzeko dituzten pertsonak, administratzaile orokorrak, ahaldunak, artekariak eta abar.

Deialdia egiten den une beretik kanpainaren hasiera ofizialera bitartean, debekatuta dago hauteskundeetarako propaganda egitea kartel bidez, merkataritza-euskarri bidez edota hedabideetan. Aldi berean, udalek hauteskunde-propagandarako eta hauteskunde-egintzetarako erabili beharko diren lekuak eta espazioak izendatzeko epea irekitzen da.

Posta bidez bozkatu nahi dutenek gaurtik, asteartea, martxoaren 26ra bitartean **eskatu ahal izango dute posta bidez bozkatzeko aukera. Atzerrian modu iraunkorrean bizi diren eta bozkatu nahi duten pertsonak** otsailaren 11tik martxoaren 7ra bitartean eskatu ahal izango dute. Halaber, gaur hasten da brailen bozkatzeko aukera eskatu nahi dutenentzako epea.

Otsailaren 17tik aurrera **egongo da ikusgai hauteskunde-errola** udaletan eta kontsulatuetan, eta egun horretan zabalduko da arlo horretako erreklamazioak egiteko epea. Egun horretan bertan emango dira argitara hiru Lurralde Historikoetako Aldizkari Ofizialetan hauteskundeetarako sekzioak, lokalak eta mahaiak.

Martxoaren 7tik 11ra bitartean, **hauteskunde-mahaiak osatuko dituzten pertsonak izendatzeko zozketak egingo dira**. Martxoaren 12tik 14ra bitartean **jakinaraziko zaie** izendapena mahaiak osatuko dituztenei, eta argibideen eskuliburuak emango zaizkie.

Martxoaren 10ean **EHAAn argitaratuko dira** hauteskundeetan parte hartuko duten **hautagai-zerrendak**.

Martxoaren 20an **hasiko da modu ofizialean hauteskunde-kanpaina**, eta apirilaren 3ra arte luzatuko da, apirilaren 5eko hauteskundeen aurreko gogoeta-egunaren bezperara arte, hain zuzen ere. Bozketaren egunean, mahaiak goizeko bederatzieta zabalduko dira eta arratsaldeko zortzieta itxiko dira, eta une horretan emango zaio hasiera emaitzak zenbatzeari.

Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeek **zenbaketa orokorra** legeak finkatzen dituen egunen epean hasiko dute, eta kargu hautetsiak berandurenera jota apirilaren 30ean aldarrikatzea aurreikusten da. Errekurtsoak jartzeko epe guztiak amaitu ondoren, emaitzak behin betiko argitaratuko dira EHAA, eta hori maiatzaren 8a baino lehen izango da. Legebiltzarra maiatzaren hasieran osatzearekin emango zaio hasiera, modu ofizialean, legebiltzarreko hamabigarren legegintzaldiari.

Bozkatzeko zentroak

Eusko Legebiltzarrerako 2016ko hauteskundeetako datuen arabera, urte hartan guztira 720 lokaletan eman ahal izan zuten botoa boto-emaeleek (101 Araban, 338 Bizkaian eta 281 Gipuzkoan), eta guztira 2.593 mahaia izan ziren. Hauteskunde horietan 7.779 herritarrek osatu zituzten hauteskunde-mahaiak, eta horiei beste 15.558 ordezeko gehitu behar zaizkie. Herritar horiek arduratu ziren hauteskundeak behar bezala bideratzeaz.

Botere publikoek arreta berezia eskainiko diote desgaitasunak dituzten pertsonak gainerako herritarren baldintza beretan botoa eman ahal izateari. Alde horretatik, Eusko Legebiltzarrerako aurreko hauteskundeetan bezala, entzuteko desgaitasuna duten eta hauteskunde-mahaikide suertatzen diren pertsonak zeinu-hizkuntzako interpreteen laguntza izango dute, hala nahi badute.

Informazio zehatza webgunean

Prozesuaren egutegia, bozkatzeko eta postaz bozkatzeko prozedurak, hauteskunde-gida, mahaikideentzako gida eta inprimaki elektronikoak dira www.elecciones.eus webgunean kontsultatu ahal izango diren atal eta informazioetako batzuk. Webgune hori laster aktibatuko da, eta apirilaren 5eko hauteskunde-deialdiari buruzko informazioa kontsultatu nahi duen edonorentzat egongo da operatibo.

Webgune horretan kontsultatu ahal izango da Eusko Legebiltzarra berritzeko abian jarri den prozesuaren alderdiei buruzko informazio zabala eta zehatza. Era berean, Euskadin egin diren aurreko hauteskunde-deialdiei buruzko datuak eta emaitzak ere kontsultatu ahal izango dira bertan.

Halaber, webguneak Twitter kontuarekin (@hauteskundeak) lotzeko aukera ematen du. Izatez, kontu horretan ia denbora errealean emango dira hauteskunde-prozesuari buruzko albisteak eta datu interesgarriak. Aurreko aldietan bezala, herritarrek 012 telefonoa ere erabili ahal izango dute galdera eta kontsulta pertsonalizatuak egiteko.

Lana eta Justizia

LAN ETA JUSTIZIA SAILAREN ETA AUDITORITZA SOZIOLABORALEN ETA BERDINTASUNAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (IVAS-ASEE) ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Hitzarmenaren xedea da Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren eta Auditoritza Soziolaboralen eta Berdintasunaren Euskal Erakundearen arteko lankidetzaren arautzea, era horretan Agenda 2030eko garapen jasangarriko helburuak hobeto betetzeko eta lan-harremanen esparruan helburu horiek bizkortasun eta efizientzia handiagoarekin lortzen laguntzeko, honako hauen bidez: gizarte-arloko prestakuntza eta informazioa, enpresen gizarte-kaudimenaren ziurtapena, jardunbide egokien bultzada, arauak betetzearen kulturaren hedapena eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Lan Duinaren Programaren zutabeak edo ezaugarriak biltzen dituzten helburuak lortzen laguntzen duen beste edozein lan edo jardura.

Hitzarmenean ezarritakoaren arabera, enpresak eta Administrazioa bera arlo soziolaboralen eta teknikoaren edota araudia hobeto betetzea eta Agenda 2030eko eta LANERen Lan Duinaren Programako helburuak lortzea erraztuko duten tresnen inguruan prestatzeko eta informatzeko zereginak egiteko beharrezkotzat hartzen duen babesa eta laguntza eskatu ahal izango dio Lan eta Justizia Sailak Auditoritza Soziolaboralen eta Berdintasunaren Euskal Erakundeari.

Gainera, Lan eta Justizia Sailak, zuzenean edo Lan Ikuskatzaitzaren bitartez, egiaztapen-lanetan eta enpresak araudiaren betetzearen esparruan edota kanpaina espezifikotan adierazitako helburuen betetzearen esparruan prestatzeko eta informatzeko lanetan jarduteko eskatu ahal izango die Auditoritza Soziolaboralen eta Berdintasunaren Euskal Erakunde profesionali.

Lan eta Justizia Sailak, halaber, erakundeak bidezko egiaztapena egin ondoren ematen dituzten betetze-ziurtagiriak edo gizarte-kaudimeneko zigilua erabili ahal izango ditu, eta enpresetan araudia betetzearen kultura edo *Compliance Laboral* delakoa ezartzeko aukera sustatzera bideratutako ekimenetan, lehiaketa publikoetan gizarte-klausulak betetzearen egiaztapenak sartzeko lanean (erakundearen ziurtagirien eta etiketen baliozkotasuna/egiaztapena bultzatuz) eta esleipen-irizpideak eta betearazpen-baldintzak finkatzeko aholkularitza-arloko esku-hartze posiblean lagunduko dio erakundeari.

Empleo y Políticas Sociales

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LA CONVOCATORIA DE 4,7 MILLONES DE EUROS EN SUBVENCIONES PARA EL FOMENTO DE ACTIVIDADES DEL TERCER SECTOR EN EL ÁMBITO DE LA INTERVENCIÓN SOCIAL

- **Beatriz Artolazabal: “ Se trata de un esfuerzo económico para apoyar a toda esa red de ayuda que llega a las personas que sufren mayor vulnerabilidad”**

El Consejo de Gobierno ha aprobado esta mañana la convocatoria de las subvenciones para el fomento de actividades del Tercer Sector en el ámbito de la intervención social en el País Vasco por un montante de 4.792.480,00 de euros.

“Se trata de un esfuerzo económico para apoyar a toda esa red de ayuda que, día a día, llega a las personas de nuestra sociedad que sufren de mayor vulnerabilidad en materias como la inclusión social, la protección de la familia o de la infancia y la adolescencia; la integración de personas inmigrantes; o personas mayores, entre otras”, ha señalado la consejera de Empleo y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal.

Mediante este presupuesto, el departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno vasco, dirigido por Beatriz Artolazabal, apoya económicamente a las entidades de iniciativa social sin ánimo de lucro para que puedan realizar actividades en el ámbito de los servicios sociales y en la intervención social.

La convocatoria de 2020 contempla tres líneas de actuación:

1.- Actividades de intervención social con personas, familias, grupos y comunidades, por un importe superior a los 3,7 millones de euros. En esta línea subvencional podrán recibir financiación actividades de intervención social con personas, familias, grupos y comunidades. En concreto, se trata del apoyo a actividades orientadas a la promoción y protección de la autonomía personal e integración comunitaria de las personas y preferentemente aquellas que supongan experimentación o innovación.

2.- Actividades para el fortalecimiento de la acción voluntaria y la participación asociativa en el ámbito de la intervención social, dotada con 599.000 euros. En esta línea podrán recibir financiación actividades orientadas al incremento de la acción voluntaria, al desarrollo de la participativa, construcción y mejora de entidades redes o federaciones preferentemente de ámbito autonómico por parte de entidades dedicadas a la intervención social.

3.- Actividades de gestión del conocimiento para la intervención social, dotada con 450.000 euros. En esta línea se apoyan actividades orientadas a la producción y adquisición de conocimiento útil para la intervención social, tales como programas formativos, proyectos de investigación, elaboración y difusión de publicaciones, cursos y seminarios.

El Tercer Sector Social de Euskadi cuenta con aproximadamente 38.525 personas empleadas y canaliza la participación social de 158.599 personas voluntarias. Durante el año pasado, se financiaron 363 proyectos a través de 348 entidades.

Salud

EL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES DEL DEPARTAMENTO DE SALUD PARA ESTE AÑO ASCIENDE A MÁS DE 17,7 MILLONES DE EUROS

- **Las ayudas y subvenciones para 2020 están vinculadas a cuatro grandes áreas: Promoción de la salud y prevención de las enfermedades; Prevención y atención de las adicciones y reducción de riesgos y daños; Investigación e innovación y Profesionales**

El Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Salud para el año 2020 asciende a 17,7 millones de euros, dos millones más que en el ejercicio anterior, y acaba de ser aprobado. Este documento es un instrumento de planificación con el que el Departamento tiene como objetivo el fomento de la salud mediante la concesión de subvenciones en el marco de los objetivos del Plan de salud 2013-2020 y de las líneas estratégicas de atención sociosanitaria para Euskadi 2017-2020. Así, teniendo como eje central las personas y los principios que sustentan el modelo de salud de Euskadi, universalidad, solidaridad, equidad, calidad de los servicios eficiencia y participación ciudadana, el Departamento de Salud se ha comprometido a mejorar en estos años la salud y la calidad de vida de las personas que viven en Euskadi y a hacerlo de una manera sostenible, eficiente y continuada, desde una concepción integral de la salud y los determinantes que inciden en ella.

Así mismo, el objetivo de mejora de la salud, incluye, la investigación en servicios sanitarios y la evaluación de la efectividad de las intervenciones en este campo, y tiene en cuenta enfermedades de interés social y sanitario relevante así como la carga de enfermedad producida por la multimorbilidad y los procesos crónicos.

En este contexto, el documento recoge la actividad subvencional del Departamento de Salud que se centra en cuatro grandes áreas con un importe total asciende a 17,7 millones de euros:

- Promoción de la salud y prevención de las enfermedades
- Prevención y atención de las adicciones y reducción de riesgos y daños
- Investigación e innovación
- Profesionales

Concretamente, el área de Promoción de la salud y prevención de enfermedades, se recogen subvenciones en el campo del VIH/Sida, infecciones de transmisión sexual y hepatitis C; para la promoción de la actividad física en el ámbito local; ayudas a Asociaciones y a Cooperativas para el desarrollo de acciones orientadas a promocionar la movilidad activa entre el alumnado; ayudas destinadas a facilitar la adherencia a los tratamientos médicos prescritos; y subvenciones a asociaciones de enfermos y enfermas.

En la prevención y atención de las adicciones y reducción de riesgos y daños se contemplan subvenciones a entidades y organizaciones y ayudas económicas para la creación y el mantenimiento de equipos técnicos, para el desarrollo de programas de prevención comunitaria de las adicciones y para la realización de proyectos de prevención y reducción de riesgos y daños, así como de promoción de conductas saludables en estos ámbitos de actuación.

En Investigación e Innovación las ayudas están vinculadas a proyectos de investigación y desarrollo en salud y entidades para la investigación e innovación en distintas áreas.

Por último, en el área de profesionales las subvenciones y ayudas se destinarán a becas de formación de profesionales del ámbito sanitario; a organizaciones profesionales, asociaciones sin ánimo de lucro que desarrollen su labor en el ámbito de la salud, y entidades científicas de especialidades sanitarias sin ánimo de lucro, para su funcionamiento y organización de actividades de formación continua del personal.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO INTEGRA EL FONDO BIBLIOGRÁFICO DE LA FUNDACIÓN DE LA ESCUELA DE ARTES Y OFICIOS DE VITORIA-GASTEIZ A LA RED DE LECTURA PÚBLICA DE EUSKADI

- **La Red de Lectura pública, creada en 2004, suma 1.036.217 personas usuarias y alrededor de 1.200.000 títulos diferentes**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy un convenio con la Fundación de la Escuela de Artes y Oficios de Vitoria-Gasteiz que permitirá la integración del fondo bibliográfico de esta entidad en el catálogo en línea de la Red de Lectura Pública de Euskadi. Este nuevo acuerdo viene a completar la oferta de la Red, que suma 1.036.217 personas usuarias y alrededor de 1.200.000 títulos diferentes.

El convenio hoy aprobado tiene por objeto establecer el régimen de cooperación y funcionamiento entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y la Fundación Escuela de Artes y Oficios de Vitoria-Gasteiz con el fin de integrar el fondo bibliográfico de su biblioteca en el catálogo en línea de la Red de Lectura Pública de Euskadi, ofreciendo la oportunidad de compartir su fondo bibliográfico, ganando en visibilidad y favoreciendo su control y acceso. Este acuerdo conlleva la incorporación de dicha biblioteca al sistema informático común de gestión bibliotecaria gestionado por el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco.

El Servicio de Bibliotecas de la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco creó la Red de Lectura Pública de Euskadi en 2004, con el objetivo de reunir al conjunto de bibliotecas públicas de Euskadi y crear sinergias para mejorar de manera ostensible los servicios. Esta Red está formada principalmente por bibliotecas de titularidad municipal, si bien también están integradas en este servicio otras de titularidad no municipal (Gobierno Vasco, Archivo Histórico, HABE, Archivo Benedictino de Lazkao, Photomuseum de Zarautz, bibliotecas dependientes de la Diputación Foral de Álava...). La Red cuenta con 1.036.217 personas usuarias, y entre sus fondos (más de 6.000.000) suma alrededor de 1.200.000 títulos diferentes.

La participación en la Red de Lectura Pública de Euskadi conlleva múltiples ventajas para las y los usuarios:

- La existencia de un carnet único y gratuito que permite el acceso al conjunto de fondos repartidos en las diferentes bibliotecas (si en una biblioteca no se puede acceder a un título, se solicita en otra).
- La existencia de un catálogo colectivo único que reúne información del conjunto de los fondos o colecciones de todas las bibliotecas.
- Acceso a eLiburutegia, la mayor biblioteca digital del Estado.

Cultura y Política Lingüística

EL DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA DESTINA 1.580.000 A IMPULSAR LA PRODUCCIÓN DE ARTES ESCÉNICAS, 120.000 EUROS MÁS QUE EL AÑO PASADO

- **El año pasado se subvencionaron un total de 39 proyectos relacionados con el teatro y el ámbito de la danza**

El Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco destinará este año 1.580.000 euros a impulsar la producción de artes escénicas, 120.000 euros más que el pasado ejercicio (un 8 % más). Se trata del segundo año en que el Ejecutivo pone en marcha esta convocatoria, que fusiona las líneas de ayudas que antes se destinaban a la producción teatral y a la producción de espectáculos de danza. El año pasado se subvencionaron un total de 39 proyectos a través de estas ayudas.

Esta convocatoria nació con el objetivo de abordar las artes escénicas desde una perspectiva unificada que tuviera en cuenta tanto el teatro como el ámbito de la danza. La convocatoria cuenta con cuatro modalidades:

- Ayudas destinadas a producciones realizadas dentro del circuito concertado: A través de estas ayudas se impulsan proyectos de producción que tengan garantizada al menos una gira dentro de los teatros de SAREA.
- Producción I y distribución: Por medio de esta modalidad se apoyará la producción y distribución de proyectos emergentes de calidad que no vayan a tener un largo recorrido en los teatros.
- Producción II y distribución: Esta modalidad pretende apoyar la producción y distribución de proyectos de calidad que estén destinados a tener un largo recorrido.
- Actividad bienal: Subvenciones destinadas a compañías vascas para impulsar actividades bienales con el fin de que tengan mejores opciones de impulsar estrategias a largo plazo.

El incremento presupuestario de este año afecta a la modalidad de actividades bienales. Además de esta convocatoria de ayudas, el Departamento de Cultura y Política Lingüística cuenta con otras líneas de subvenciones dirigidas a impulsar las artes escénicas. Por un lado, el Departamento cuenta con la convocatoria para el fomento de las artes escénicas, que tiene otras seis modalidades. Además, la convocatoria dirigida a la creación cultural cuenta con dos modalidades vinculadas a las artes escénicas: creación de coreografías y textos teatrales.

Seguridad

1.788.719 PERSONAS PODRÁN VOTAR EN LAS ELECCIONES DEL PRÓXIMO 5 DE ABRIL PARA ELEGIR EL NUEVO PARLAMENTO VASCO

- **La información sobre el proceso electoral estará accesible en la web www.elecciones.eus**

Un total de 1.788.719 personas conforman el censo electoral cerrado al 1 de diciembre de 2019, para elegir el 5 de abril a las 75 parlamentarias y parlamentarios del próximo Parlamento Vasco en la que será la XII legislatura. Las labores de supervisión del proceso electoral, que comienza hoy con la publicación de la convocatoria electoral en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará a primeros de mayo con la constitución de la nueva Cámara Vasca, serán llevadas a cabo por las 115 personas que conforman las diferentes Juntas Electorales (Central, de Comunidad Autónoma, de Territorio Histórico y de Zona). La página www.elecciones.eus puesta en marcha por la Dirección de Régimen Jurídico, Servicios y Procesos Electorales del Departamento de Seguridad posibilitará el acceso a toda la información electoral en curso.

De cara a las elecciones del 5 de abril, de conformidad con el censo cerrado a 1 de diciembre de 2019 y sin perjuicio de los datos actualizados que proporcione el INE, un total de 1.788.719 personas de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrán ejercer su derecho a voto para elegir a las y los 75 representantes que estarán en el hemiciclo vasco durante la próxima legislatura (2020-2024). D En los últimos comicios vascos fueron 1.778.776 personas las convocadas a las urnas el 25 de septiembre de 2016. Esto significa que en esta ocasión, el censo se ha incrementado un 0,56 respecto al de 2016. Por territorios, hay que señalar que en Bizkaia son 947.791 en Gipuzkoa 582.938 y en Araba 257.990.

En cuanto a las personas residentes en el extranjero que tienen derecho a voto, en 2020 esta cifra se eleva a 75.169, es decir, 6010 más residentes que en 2016.

Caben señalar que las Juntas Electorales tienen prorrogado su mandato desde las pasadas elecciones generales de 10 de noviembre. Las Juntas Electorales son los órganos encargados de velar por el buen funcionamiento de todo el proceso. La Junta Electoral de la Comunidad Autónoma, máxima responsable del proceso, se apoyará en las tres Juntas del Territorio Histórico y en otras diez Juntas de Zona, compuestas por juristas y miembros de la judicatura.

En las próximas semanas se irán materializando los datos de las candidaturas que concurrirán a las elecciones al Parlamento Vasco el próximo día 5 de abril.

Principales hitos electorales

Tras la publicación de la convocatoria en el BOPV se producirán los principales hitos del cronograma electoral. En concreto, del 12 al 19 de febrero, los partidos políticos designarán a las personas que ejercerán de representantes generales

de las **candidaturas ante la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma**, y en los días sucesivos deberá nombrarse a las que representen a las candidaturas en cada demarcación, administradoras y administradores generales, apoderadas y apoderados, interventoras e interventores, etc.

Desde el mismo momento de la convocatoria y hasta el comienzo oficial de la campaña estará prohibido realizar propaganda electoral mediante carteles, soportes comerciales y medios de comunicación. Al mismo tiempo, los ayuntamientos deberán designar los lugares y espacios para llevar a cabo la propaganda electoral y los actos de campaña cuando ésta comience.

También desde hoy mismo, martes, hasta el día 26 de marzo se podrá **solicitar el voto por correo**. Por su parte, las personas **residentes de forma permanente en el extranjero y que deseen votar** podrán solicitarlo de 11 de febrero al 7 de marzo. También comienza hoy el plazo para quienes deseen solicitar votar en braille.

La **exposición del censo electoral** en los ayuntamientos y consulados tendrá lugar a partir del día 17 de febrero, fecha a partir de la cual se podrá llevar a cabo las posibles reclamaciones. Ese mismo día se publicarán en los tres Boletines Oficiales de los Territorios Históricos las secciones, locales y mesas electorales.

El **sorteo para designar a las personas que deberán integrar las mesas de votación** se llevará a cabo del 7 al 11 de marzo. La **notificación** de su designación a quienes integren las mesas, así como la distribución de los manuales de instrucción, tendrán lugar del 12 al 14 de marzo.

La **publicación en el BOPV de las candidaturas** proclamadas que concurren a las Elecciones tendrá lugar el 10 de marzo.

El **inicio oficial de la campaña electoral** será el día 20 de marzo y se prolongará hasta el día 3 de abril, víspera de la jornada de reflexión previa a las votaciones del 5 de abril. Ese día, las mesas se abrirán a las nueve de la mañana y se cerrarán a las ocho de la tarde, hora en la que comenzará el recuento de los resultados emitidos.

El **escrutinio general** por parte de las Juntas Electorales de Territorio Histórico comenzará se realiza en los días posteriores que marca la ley, llevándose a cabo la proclamación de cargos electos no más tarde del 30 de abril. La publicación definitiva de los resultados en el BOPV, una vez vencidos todos los plazos de interposición de recursos, se llevará a cabo antes del 8 de mayo. Con la composición del Parlamento, hacia primeros de mayo, dará comienzo la duodécima legislatura parlamentaria.

Centros de votación

Según los datos de las elecciones al Parlamento Vasco de 2016 se disponía de un total de 720 locales donde poder depositar el voto (101 en Araba, 338 en Bizkaia y 281 en Gipuzkoa), con un total de 2.593 mesas. En las últimas elecciones fueron 7.779 personas las integrantes de las mesas de votación, a

las que se sumaron 15.558 suplentes, quienes posibilitaron el normal transcurso de los comicios electorales.

En aras a posibilitar y facilitar que cualquier persona con discapacidad pueda ejercer sus derechos en igualdad de condiciones al igual que el resto de la ciudadanía, la Administración velará por dicho cumplimiento. En ese sentido, al igual que ya sucediera en las últimas elecciones al Parlamento Vasco, las personas con discapacidad auditiva que sean designadas miembros de mesas electorales podrán hacer uso de intérpretes de lengua de signos.

Detallada información en la web

Los calendarios del proceso electoral, los procedimientos del voto y voto por correo, una guía del electorado, así como una guía para las personas que formen parte de las mesas electorales e impresos electrónicos son algunas de los apartados y de las informaciones que podrán ser consultadas en la web www.elecciones.eus que próximamente estará activa y operativa para quienes deseen consultar la información sobre la convocatoria electoral del 5 de abril.

A través de la citada web se puede consultar y obtener información amplia y detallada de todos los aspectos del proceso que se inicia ahora para renovar el Parlamento Vasco. De igual manera, permite acceder a los datos y los resultados de las anteriores convocatorias electorales que se han llevado a cabo en Euskadi.

Otra de las posibilidades que ofrece la web es la de suscribirse a la cuenta de Twitter (@hauteskundeak), que ofrecerá las últimas noticias y datos de interés relacionados con la nueva convocatoria electoral casi en tiempo real. De igual manera, y como en anteriores ocasiones, se pone a disposición de la ciudadanía el teléfono 012, para poder llevar a cabo preguntas y consultas personalizadas.

Trabajo y Justicia

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA Y EL INSTITUTO VASCO DE AUDITORÍA SOCIOLABORAL E IGUALDAD IVAS-ASEE

El convenio tiene por objeto regular la colaboración entre el Departamento de Trabajo y Justicia del Gobierno Vasco y el Instituto Vasco de Auditoría Sociolaboral e Igualdad para el mejor cumplimiento de los objetivos de desarrollo sostenible de la Agenda 2030 y para contribuir a la más rápida y eficiente consecución de dichos objetivos en el campo de las relaciones laborales mediante la formación e información en materia social, la certificación de la solvencia social de las empresas, el impulso de las buenas prácticas y la extensión de la cultura del cumplimiento normativo y cualquier otra labor o actividad que contribuya a la realización de los objetivos que contienen los pilares o características del Programa de Trabajo Decente de la Organización Internacional del Trabajo.

Según se establece en el convenio, el Departamento de Trabajo y Justicia podrá requerir del Instituto Vasco de Auditoría Sociolaboral e Igualdad, el apoyo y colaboración que considere necesarios para llevar a cabo las tareas de formación e información a las empresas y a la propia Administración sobre materias sociolaborales y técnicas o herramientas para facilitar el mejor cumplimiento de la normativa y la consecución de los objetivos de la Agenda 2030 y del Programa de Trabajo Decente de la OIT.

Además, el Departamento de Trabajo y Justicia, directamente o a través de la Inspección de Trabajo, podrá requerir a los profesionales del Instituto Vasco de Auditoría Sociolaboral e Igualdad su actuación en labores verificadoras de apoyo, así como de formación e información a las empresas en el campo del cumplimiento normativo o para la consecución de los objetivos señalados en campañas específicas.

Asimismo, el Departamento de Trabajo y Justicia podrá utilizar las certificaciones de cumplimiento o el sello de solvencia social que, tras la oportuna verificación, expidan los auditores pertenecientes al instituto y le apoyará en iniciativas dirigidas a la promoción de la implantación en las empresas de la cultura del cumplimiento o *Compliance Laboral*, y en la introducción de sus verificaciones de cumplimiento de las cláusulas sociales en los concursos públicos impulsando, en su caso, la validez/acreditación de sus certificaciones y etiquetas y asimismo en su posible intervención asesora en la determinación de los criterios de adjudicación y condiciones de ejecución.